


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 jaitsi ziren 2011ko apirilean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2011ko apirila, 2010ekoarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %1,1 gehitu ziren.

2011ko apirilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,1 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



(*) Gehikuntza apirilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2011ko apirilean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 jaitsi dira.

Apirilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,4ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,2ko igoera. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Etxegintzako lehengaien kostuak %0,1 igo dira eta Obra Zibilekoenak %4,3.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%26,7), Petrolio-fintzea (%23,2) eta Metalurgia (%15,9) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2011ko apirila 2010ekoaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Erauzketa industriak (%-6,8), Zura eta artelazkia, altzariak izan ezik (%0,8), eta Altzarigintza eta beste manufaktura-industriak (%1,6).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO APIRILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	120,3	-0,2	1,1	1,6
ERAIKINAK	119,1	-0,3	0,4	1,1
OBRA ZIBILA	124,9	0,2	3,5	3,4
LEHENGAIEN KOSTUA	119,7	-0,2	1,0	1,7
ERAIKINAK	118,1	-0,4	0,1	1,0
OBRA ZIBILA	125,6	0,2	4,3	4,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	0,0	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua